

Haur Literatur Aretoa 08

Haur Literatur Aretoa (HLA), Berbaro sortzeaz batera egiten hasi zen ekintza da. Umeen artean irakurtzeko zaletasuna bultzatzea du helburu nagusi, baita euskaraz idazten diren ipuin eta liburuak ezagutzera ematea ere.

Proiektu handi honek azpi atal ugari ditu, hona nagusien errepasoa:

Dakizuenez, urteko argitalpen berriak eta aurreko urteko liburu gomendagarriak biltzen dituen irakur gida argitaratzen dugu. Horrez gain, eskolaz eskola eta eskuz esku, ibiltzen den liburu erraldoi bat ere badugu, umeez olerkiak eta testuak idazten dituzte bertan eta gure liburuari bizitza ematen diete. Aretoan bertan ere hainbat ekintza egiten dira. Erakusketa girotua adin tarte bakoitzari egokitutako liburutegi txikia da. Eskola umeez 45minutuko saioetan, ginkana baten bitartez, beraien adinerako azkeneko urteetan argitaratu diren liburuak ezagutzen dituzte. Antzerki, ipuin kontalari edo ipuin antzeztuez gozatzeko parada ere izaten dute eta baita idazleekin hitz egitekoa ere. Aurten, besteak beste, Pako Aristi, Aizpea Goenaga, Aitor Arana, Jabier Muguruza, Katixa Agirre, Xabier Mendiguren, Joxe Mari Iturralde, Arrate Egaña, Antton Irusta eta Antton Kazabon hasi dira gure aretoetara hurreraten.

Baina HLA ez dago lozorroan, ekintza berriak eta espazio berriak aldarrikatzen ditu. Aurten, lehenengo aldiz, Lekeitio eta Zornotzara heldu da. Otsailean joan ginen kostaldera eta orain dela egun batzuk otsaitu dugu Zornotzako umeekin izandako lehenengo esperientzia.

Bestalde, Durango, Berriz, Zaldibar, Elorrio eta Azokan berdin jarraituko dugu baina berrikuntzekin. Azokako HLAN esaterako berrikuntza ugari izango ditugu aurten. Lasai irakurtzeko tarteak izango baditugu ere, ekintza gehiago egingo dira, hainbat tailer izango ditugu, esaterako, musika instrumentuak egitekoa. Abenduaren lehen egunetan Durangon izaten dugun Azoka handian, literaturak bakarrik ez, musikak ere garrantzia dauka eta horrek isla izango du haurrentzako gure Aretoan ere.

AZOKAKO HLA: KOKALEKU BERRIA

Euskal Liburu eta Disko Azokarako antolatzen dugun Haur Literatur Aretoak kokaleku berria izango du aurten. Azkeneko urteetan, erakustazokaren Plateruena aldera egon bada ere, aurten, beste aldean egongo da, hau da, berdegunea dagoen aldean. Sarrera ez du azoka barrutik izango baina espazio gehiago izango du, batez ere, gurasoentzako.



egitaraua



H L A

	Abenduak 5	Abenduak 6
10:45-11:45	Liburuen arteko ginkana (lehiaketa)	Eskulana: "Liburu Erraldoia sortu"
11:45-12:45	Eskulana: "Konposizio artistikoa"	"Martin Txiki eta mari Zikin: herri ipuinak" I. Millet
13:00-14:00	Irakurketa librea	Asmakizunak (lehiaketa)
14:00-15:00	Irakurketa librea	Irakurketa librea
15:00-16:00	Liburuen arteko ginkana (lehiaketa)	Eskulana: "Liburu Erraldoia sortu"
16:30-17:30	Eskulana: "Konposizio artistikoa"	"kanturik gabeko herria" Ixabel Millet
18:00-19:00	Miren Agur Meabe idazle "Urtebete itsasargian"	Liburuen aurkezpena / Bideo emanaldia
19:00-19:45	Irakurketa librea	Irakurketa librea

	Abenduak 7	Abenduak 8	Abenduak 9
10:45-11:45	Eskulana: "Instrumentuak"	Eskulana: "Collage portada"	Eskulana: "Puzlea sortu"
11:45-12:45	"Ametsak lo" Antton Kazabon	Euskal karaokea	Goizane Azpiri ipuin kontalaria
13:00-14:00	Liburuen aurkezpena / Bideo emanaldia	Liburuen aurkezpena / Bideo emanaldia	Liburuen arteko ginkana (lehiaketa)
14:00-15:00	Irakurketa librea	Irakurketa librea	Irakurketa librea
15:00-16:00	Liburuen arteko ginkana (lehiaketa)	Asmakizunak (lehiaketa)	Liburuen aurkezpena / Bideo emanaldia
16:30-17:30	Alaitz Muro eta Agurtzane Villate ilustratzaileak	Euskal karaokea	Asier Ladron de Gebara magoa
18:00-19:00	Eskulana: "Instrumentuak"	Eskulana: "Collage portada"	Eskulana: "Puzlea sortu"
19:00-19:45	Irakurketa librea	Irakurketa librea	Irakurketa librea

BAKOITZARI BEREA



"Laster Gabonak", azken denboraldian horixe gara entzuten hasiak. Gabonekin batera opor egunak etorriko zaizkigu, ospakizunak, etxe gehienetan jana barra-barra, eta zelan ez Olentzero. Negozioren bat dutenek ondotxo dakite horrek zer dakarren: erregaluak, erosketak eta merkealdirako sarrera.

Berbaroko bazkideontzat hau ez da berria. Sarritan jotzen dugu Berbaroko bazkideontzat hau ez da berria. Sarritan jotzen dugu zuongana honen gaineko zehaztapenak ematen. Berrito ere zilegi bekigu zuon kontzientziei eragitea, izan ere, hausnarketaz aparte inplikazioa eskatuko dizuegu.

Euskaldun askok, euskaraz jarduteko aukera ematen diguten negozioak aukeratzen ditugu. Jarrera hau defendatzen ez gara hasiko. Honezkerok denok izango ditugu, honen garrantziaz jabeturik, horrela jokatzeko argudioak eta arrazoiak.

Oraingoan aurrerapauso bat eskatuko dizuegu, izan ere erreparatu gero, euskararen aldeko esfortzua ikus genezake. Batetik, euskaraz jakin bai, baina horrekin konformatu ez eta, zerbitzua bere osotasunean euskalduna izan dadin, euskarazko oharrak, kartelak eta abarrak erabiliko dituzten merkatarik eta ostalariak topa genitzake. Bestetik, euskaltzaleak ditugu, beti euskaldunak ez direnak. Euretako asko euskaltegi giroan ibiliak, ahozkoan trakets moldatu arren, zenbaitetan seme-alaba edo biloba euskaldunak zitezen ardura erakutsi dutenak. Gainera, ikasten dihardutenak badaude, Berbalagun egitasmoan, Dendaketan ikastaroetan (talde bi sortu dira aurten). Eurek ere, familia, lagun edo Udaleko Euskara Sailaren bidez paisaia euskaldunagoa izateko esfortzua egiten dute, Gabonetan eta merkealdian nahiz urte osoan zehar. Errefortzu positiboa kritika zorrotza bezain eraginkorra delakoan, esfortzu hau saritzera animatzen zaituztegu.

Merkatari, ostalari eta elkarteekin lan egiten dugunok ondotxo dakigu hau ezinbestekoa dela. Euskaraz adierazitakoa eskertu, honela bertokoek kontuan hartzen dugula jabe daitezten. Eurek alde aurretik emandako pausuak ez du gure beste aurrerapauso bat merezi, ala? Sariaren eraginaz pentsa ezazue. Jendearen gogo berotzeak gure kulturari irauten lagundu dio. Eskerrik asko esanez hobeto ezagutuko duzue gure herria, langile askoren atzetik euskaltzalea den pertsonak harrituko zaituzte eta.

Gazte taldeak aurrera darrai

Duela 3 urte hasi ginen Berbaroko udalekueetan parte hartzen. Bertan begiraleek azaldu ziguten udalekuen helburuetako bat zein zen. Urtean zehar ekintza ezberdinak burutuko zituen gazte taldea antolatzeke lanari ekitea, Durangoko gazteei aisia euskaraz gozatzeko aukera emango zion gazte taldea. Beraz, gu izango ginen gazte taldeko partaide berriak. Honela hasi ginen astean zehar biltzen eta urtean zehar egingo genituen ekintzak zehazten. Lehenengoa, Otazara irteera izan zen, ondoren, euskal dantza ikastaroa eta txalaparta ikastaroa ere egin genituen, emaitza ona izan zuten eta agian jarraipena emango diegu aurten. Orain tailer berriak egiteko asmoa daukagu, batzuk hasi dira jada begirale agiria ateratzeko ikastaroa egiten.

Gogotsu gaude gazte taldea indartzen jarraitzeko, gainera hor ditugu begiraleak, beraien lana azpimarratzekoa da, beti baitaude laguntzeko prest. Zuek ere animatzen zaituztegu gurekin batera aisia euskaraz gozatu eta Durangon eta Euskal Herrian zabaltzera.

Berbalagunek 5.erantz

“Umea” koskortzen hasi dela bistakoa da. 2003an jaio zen ehunetik gora lagunek parte hartuta, eta gaur egun laurogeita hamar inguru batzen ditu. Euskerak batzen gaitu, motiboa bata edo bestea dela. Berbalagunez gain, beste elkarte eta erakunde batzuek ere inplikaturik daude egitasmoan, hauek ere batuta. Batu, gehitu, erabili, kontzeptu garrantzitsuak dira Berbaroren ahaleginean, eta bide horri jarraitzekotan gaude.

Euskaldun zahar, betiko euskaldun edo euskaldun oso erabiltzen ditugu gure bazkideengan hurreritzen garenean Berbalagun izan daitezen eskaintzeko. Berdin da betiko oso zaharra, betiko zahar osoa edo zahar oso betikoa izatea, Berlagunen helburua ahozko euskera zabaltzea da, euskerazko harreman sarea zabaltzea, lotsak eta beldurrak kendu eta uxatuta. Bai, egia da, ama hizkuntza euskera dutenek asko lagundu dezakete egitasmo honetan, euskeraz edozein egoera eta esparrutan mintzatzeko gai diren lagunak “fabrikatze” honetan. Arduririk behinena, ostera, gaur dugu, asko jota, bihar. Eta pixka bat es poco izan arren, bada zerbait; denborak esango du zenbat. Animo betiko euskaldun zahar osook, eta besteok!



PATXI ZUBIZARRETAREN HITZALDIA

Haur Literatur Aretoak, nagusie zuzendutako ekintza osagarria izango du aurten, Patxi Zubizarreta idazlearen hitzaldia.

Umeei zelan helarazi erakutsiko digu Patxi Zubizarretak, ordu eta erdi inguru iraungo duen hitzaldi praktikoaren bitartez.

Hitzaldia, abenduaren 12an, iluntzeko 7retan izango da San Agustinen eta irakasle, guraso eta interesa duten orori dago zuzendua.

ARABAR ERRIOXAKO ARDOEN DASTATZEA

Aurtengo bigarren ikastaro laburra abenduaren 13an egingo dugu, txokoan, iluntzeko 7etan.

Ekintza honen helburu nagusiak ardoaren kultura eta arabar Errioxari buruzko ezagutza zabaltzea dira, euskera komunikazio tresna delarik. Dastatze saioa, Mikel Garaizabal sommelier eta enologoak gidatuko du eta gaian adituak direnei edo interes berezia dutenei zuzenduta dago. Izena emateko azken eguna abenduaren 11 izango da. Plaza mugatuak izango dira. Prezioa: bazkideek 4€, bazkideak ez direnek 7€.




Hi, artista, hi! lehiaketa...

3. edizioa

Aurten, gure lehiaketaren 3. edizioa izango da eta asmoa iaz izandako lan kopurua berdindu edo gainditzea da!

6 eta 12 urte bitartean badituzue “gabonak” gaitzat hartuta bidali zuen marrazki, eskulan edo gutunak elkartera. Sari banaketa Plateruena Kafe Antzokian izango da abenduaren 28an. Lehiaketako oinarriak gure web gunean aurkituko dituzue!



argitalpen berriak

HAUR ETA GAZTEEN IRAKUR-GIDA.
 Berbaro Elkartek argitaratuta.
 Azaleko irudia: Hiari Zamakona.
 Diseinua eta Maketazioa: Di-da



Seguru asko, batek baino gehiagok esku artean izan du urtero sasoi honetan Berbarok argitaratzen duen Haur eta Gazteen irakur gida. Gida honek helburu nagusi bi ditu: bata, guraso, irakasle, ikasle eta umeei, laguntzea liburuak aukeratzeko orduan eta, bestea, kontsultatzeko gida erabilgarria izatea edota erreferentzia gida izatea Euskal Liburu eta Disko Azokarako eta urtean zehar. Guztira 4.000 ale banatzen dira Durangaldeko eskoletako umeen artean, liburutegietan, liburu dendetan, eta Liburu eta Disko Azokan. Lana osatzeko Berbarok laguntza izan du, Urtxintza eskolarena, Gerediaga elkartearena eta argitaletxeena. Erabilgarria izan dakizuen espero dugu.

ikimilikili. klik

www.merkatari.net; web gune hau Donostiako Euskararen Udal Patronatuak martxan jarri du.

Donostiako merkataritzan eta ostalaritzan sortzen diren euskarari buruzko beharrei erantzuteko sortu da. Horregatik zerbitzu gehienak bertakoei zuzenduta daude: dirulaguntzen berri, itzulpen zerbitzua eta besteak. Hala ere, badaude beste hainbat zerbitzu oso interesgarri edozein merkataritza edo ostalaritza erabiltzeko modukoak, kartel ereduak, edota idazkiak eta hiztegiak on line kontsultatzeko. Web praktikoa praktikoa.



Halaber, badago sarean beste gune bat arlo horretan lanean dabilzantzat eta oinarrizko hitzak edo esamoldeak ikasteko gogoia dutenentzat. Heltzeko buelta batzuk eman behar badira ere, oso ibilbide erreza da; goazen bai:

www.merkatari.net web gunean sartu eta ezkerretara ikasmaterialak jartzen duen tokian klikatu, gero klik egin argitalpenak tituluak, eskuinera xede berezietako langaiak jartzen du, horra hor dendaketan, ostalaritza eta beste hainbat arloko ikasmateriala: osasun esparruko, zuzenbidea, gurasoei zuzendutako...

Dendaketan: merkataritza arloko profesionalen zuzendutako ikasmateriala da, bezeroekiko harremanetan euskara sustatu nahi duena.

Ostalaritza, taberna eta jatetxeetako eguneroko komunikazioa lantzeko oinarrizko materiala.

Gurasoak lagunduz: seme-alabei ikasketetan lagundu nahian euren euskera egokitu nahi duten gurasoak gaitzeko langaiak.



3ei

Euskara elkarteei buruzko erakusketa ibiltaria antolatu du Topagunea Euskara Elkarten Federazioak eta ibilbidea Durangon hasiko da. Beraz, azoka egunetan, San Agustineko hallean, euskara elkarte bat zer den, zeintzuk diren jorrotzen dituen lan arlo nagusiak eta Berbarok zer egiten duen jakiteko aukera paregabea duzue.

DENOK BER OSATZEN B A DUGU R O

Elkarteari zuon ekarpenak, iradokizunak egiteko hainbat bide dituzue: Berbarotarrean iritzi artikuluren bat idatziz, Zuzendaritza Batzordean parte hartuz, zuon gogoeta eta iritziak bertara etorri edo emaillez helaraziz... Badakizue, zuon berri eduki nahi dugu!



ZORIONAK



Gure lankide Piedad eta batzordekide Leire ama izan dira, ZORIONAK BIOI eta gure ondo etorrikeri beroena bazkide txiki berriei!

Laguntzaileak:

